


BAPOREA



BILDUMA

Makaleko beleak

Aldous Huxley

Irudiak: Pep Montserrat

Itzulpena: Josean Sagastizabal

ikasmina



Bazen behin, Pearblossom-eko makal batean,
bi beleren habia bat.



Zuhaitzeko behealdeko zulo batean kriskitin-suge bat bizi zen. Oso zaharra eta handia zen, eta kriskitinak astintzen zituenean zarata izugarria egiten zuen! Littlerock-eko eskolako haurrek entzuteko modukoa!







Normalean lo egoten zen, baina arratsero,
hiru eta erdietan puntuan, zulotik irten, narra-
sean joan zuhaitzean gora, eta beleen habian
begiratzen zuen.